

**ERABAKIA, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, horren bidez, ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEA rako F 458 Atezain nagusia lanpostua aldi batez eta zerbitzu betekizunetan betetzeko deialdia hutsik geratuko dela adierazteko dena.**

## GERTAKARIAK

**Lehenengoa.**- Euskal Herriko Unibertsitateko Gerentearen 2024ko ekainaren 14ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

**Bigarrena.**- Gerentearen erabakiaren bidez, 2024ko uztailaren 19koa, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen onartutako lehiakiderik gabe.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehenengoa.**- Honako arau hauek dira aplikagarri:

- Urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 35/2015 Legea (2015eko urriaren 2ko EHAAn argitaratua).
- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAn argitaratua).
- Akordioa, 2017ko uztailaren 18koa, AZPko funtzionarioaren plangintza batzordearena, AZPko funtzionarioei zerbitzuen eginkizunak esleitzeko prozedura barematua ezartzeko buruzkoa 2017ko irailaren 28an Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak berretsia (2018ko maiatzaren 21eko EHAA)..
- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

**Bigarrena.**- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, errektorearen eskumenak eskuordetzeko eta gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko dena hartutako 2021eko urtarrilaren 28ko errektorearen erabakiaren bidez (2021eko otsailaren 12ko EHAAn).

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau,

## ERABAKI DU

**Lehenengoa:** Erabaki honen eranskinean zehasten den lanpostua betetzeko prozedura amaitutzak jotzea, eta deialdia hutsik gelditu dela adieraztea.

**Bigarrena.**- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean (Administrazio eta zerbitzuetako langileak. Hautaketa eta hornikuntza. Barne-deialdiak).

**Hirugarrena.**- Erabaki hau jakinaraztea, dagozkion Zerbitzuko Buruari edo Administrazioarekiko. Har beza kontuan AZPkoen Atalak.

**Laugarrena.**- Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2021eko urtarrilaren 28ko erabakia  
(2021eko otsailaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

**I. ERANSKINA    ZERBITZU BETEKIZUNA    2024/06/14**

---

**Lanpostuaren Izena:**    Atezain nagusia  
**Lanaldia:**                Arratsaldez jarraitua  
**Eref.:**                     F 458  
**Zenbatgarrena:**        36  
**Maila:**                    16  
**Taldea:**                    E  
**REskala:**                Menpekoa  
**H.E.:**                      2; 2012ko abenduaren 31  
**Langunea:**              ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEA  
**Campus:**                BIZKAIA  
**BE:**  
**Ondorio data:**